

GIB birusa ezin da erabili adingabe bat adoptatzeko aukera ukatzeko argudio gisa, birus-karga detektaezina duten GIB birusdun pertsonak ez baitute zaintza izateko batere mugarik, eta ez baitute adingabearen intereserako arriskurik, fase detektaezinean ez dutelako gaixotasuna transmititzen.

Nola jar naiteke harremanetan Alcaláko Unibertsitateko Klinika Juridikoarekin?

Bidali zure kontsulta gure helbide elektronikora
clinicallegal@uah.es

Gogoan izan:

Klinika Juridikoak doan eskaintzen du zerbitzu hori

GIBa duten pertsonen eskubideak baliatzeko aukera ematean espezializatuta dago

Zerbitzu anonimoa eta konfidentziala da

Zure kontsultei erantzuten dietenak Zuzenbideko ikasle eta irakasleak dira

DECADE katedra
Alcaláko Unibertsitatea
catedradecade@uah.es

Alcaláko Unibertsitateko
Klinika Juridikoa
@ clinicallegal@uah.es
f ClinicaLegalUAH
t ClinicaLegalUAH

HONAKO HAUEN LAGUNTZAREKIN:



08 Alcaláko Unibertsitateko
Klinika Juridikoa

Adingabeak adoptatzeko **GIB** birusa duten pertsonek egokitasuna

EU



Adoptatu al dezake adingabe bat **GIBa** duen pertsona batek?

Estatu mailako adopzioan, ez dago GIB birusa duen pertsona batek adingabe bat adoptatzeko inolako eragozpenik, baldin eta legezko baldintzak betetzen baditu.

Zoritxarrez, nazioarteko adopzioan beste herrialde batzuk dira baldintzak ezartzen dituztenak, eta GIBa duten pertsonak baztertu ditzakete.

Adopzio-eskatzailleentzat Kode Zibilak ezartzen dituen eskakizun orokorrez gain, hala nola gutxieneko adina eta baldintza psikopedagogiko eta sozioekonomiko jakin batzuk betetzea, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoak adopzio-hartzaileen egokitasunaren eskakizuna exijitzea gehitzen du, Autonomia Erkidegoko dagokion organismoak balioetsi behar duena, beharrezko ziurtagiria jaulkitzeko.

Espainian adopzio-eskatzaillearen egokitasunerako eskatzen diren betekizunen artean, alderdi psikosozialak ebaluatzen dira, hala nola elkarriketetan erakutsitako jarrera eta jokabidea, eskatzaile bakoitzaren profil indibiduala, bikotearen historia eta egungo harremana, hezkuntza-gaitasunak, familia-bizimoduaren estiloa, jatorrizko familiarenganako eta adingabearen iraganarekiko jarrera, osasun fisikoa eta osasun-estaldura, lan-egoera eta egoera ekonomikoa, etxebizitzaren eta ingurunearen ezaugarriak. Oinarrizko eskakizun horiek betetzen badira, ez legoke egokitasun-ziurtagiria eskuratzeko arazorik.

Adoptatzeko orduan, zer arazo aurkitu ohi dituzte **GIB** birusa duten pertsonak?

Hainbat irizpide hartzen da kontuan eskatzaileen egokitasunaren balorazioan. Horietako bat da “dituen ezaugarriengatik edo bilakaeragatik, adingabe baten garapen integrala kaltetzen duen edo kalte dezakeen gaixotasunik eta/edo desgaitasun fisiko edo psikikorik ez izatea”.

Horixe da, zalantzarik gabe, adopziora jo nahi duten GIB birusa duten pertsonak gehien kezkatzen dituen alderdia, beren egoera serologikoaren berri ematen dutenean prozeduratik kanpo utziko dituzten beldur baitira. Hala ere, jakin behar dugu, adopziorako eskabidearekin batera, eskatzaileen mediku-ziurtagiria aurkeztea eskatzen den arren, GIB birusaren datuak ez lukeela egokitasuna balioesterakoan garrantzitsua izan behar, batez ere birus-karga detektaezina eta GIB birusa duen eskatzaillearen osasun-egoera ona baldin bada.

Gaur egungo ebidentzia zientifikoarekin, GIB birusa transmititzeko moduak ezagututa eta eretrobirusen aurkako tratamenduen eraginkortasuna handia izanik, hanka-sartzea da pentsatzea GIB birusak nabarmen murriz dezakeenik pertsonen bizi-itxaropena. Horixe da gurasoen “egokitasuna” ukatzen denean hutsaltzen saiatu beharreko argudioa, eta ez bakarrik adopzioaren kasuan, baizik eta baita zaintza eskatzeko eta adingabeak harreran hartzeko prozeduretan ere.

Zer diote auzitegiek **GIB** birusdun pertsonen adopziorako egokitasunaren inguruan?

Auzitegiek ohartarazi dute GIB birusa izatea ezin dela hartu adingabe bat zaintzeko eta hari arreta emateko ezintasun-kausatzat.

Hala ere, garrantzitsua da pertsona baten GIB birusagatiko infekzio-fasea eta pertsona horrek inguruan duen egoera bereiztea. Informazio horren arabera erabaki beharko litzateke adingabe bat adoptatzeko, harreran hartzeko edo zaintzeko ‘egokitasuna’.

Auzitegiek adoptatzeko eskubidea mugatu diete lan-bizitza garatzeko moduan ez dauden eta toxikoen kontsumoagatiko GIBaren ondoriozko ezintasun-egoera bat aitortuta izanik, osasun-egoera eskasa, autonomia pertsonal urria eta mendekotasun fisiko handia duten pertsonak. Beste kasu batean, GIB birusa izateagatik narriadura fisiko nabarmena zuen ama bati adoptatzeko eskubidea ukatu zitzaion, adingabearen interesari lehentasuna eman behar izatea oinarritzat hartuta, pertsona horrek ez baitzuen behar bezala jarraitzen ezarrita zuen mediku-tratamendua.

Beste epai batean adierazten zen GIB birusagatiko infekzioa izateak – behar bezala tratatzen bada eta beharrezko neurriak hartzen badira– ez ziela eragozten eskatzaillei adopziozko gurasoei dagozkien betebeharrak betetzeko bizimodu normala eta erabat egokia izatea, eta hori ez dela erabakigarria ezezko erantzuna justifikatzeko.